



vi. Iragangaiztasuna eta iragankortasuna

vi.1. Egoera-mailako aditz kopulatiboak: *izan* (*v egon*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Egoera-mailako aditz kopulatiboak: *izan* (*v egon*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=6&e=35&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

egoera/izaera mailen arteko bereizketa, iragangaiztasuna/iragankortasuna, kopulak

Deskribapena

Predikazioa bi sail nagusitan banatu ohi da: batetik, *bigarren mailako predikatuak* daude, ezinbesteko ez diren predikatuak; bestetik, *lehenengo mailako predikatuak* daude, perpaus gramatikalak lortzeko beharrezkoak direnak eta, ondorioz, ezabatu ezinezkoak (Zabala 1993: 137). Lehenengo mailako predikatuen artean, Zabalak (1993: 137) dioenez, ohiko gramatikek *adizki-predikatuak* eta *izenki-predikatuak* (*atributu* ere deituak) bereizi izan dituzte. Azken hauei erreparatuko diegu kapitulu honetan.

Izenki-predikatuak aditz zehatz batzuek azpikategorizatzen dituzten predikatuak dira, hots, aditzek

osagarri modura eskatzen dituzten predikatuak. Izenki-predikatuen artean, *izaera-mailako predikatuak* eta *egoera-mailako predikatuak* bereizten dira (Zabala 1993: 158). Izaera-mailako predikatuak subjektuaren ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzte (1a). Aldiz, egoera-mailako predikatuak subjektuaren ezaugarri iragankor eta behin-behinekoak adierazten dituzte, baita egoera zehatzak ere (1b) (Zabala 1993: 160 aipamenekin, 2003: 426).

(1a)	Miren	bilbotarra	*dago/da	(Zabala 2003: 426- 427)
	Miren.ABS	bilbotarra	dago (egon) / da (izan)	
(1b)	Miren	haurdun	dago/da	(Zabala 2003: 426- 427)
	Miren.ABS	haurdun	dago (egon) / da (izan)	

Egoera-mailako predikatuak bi oinarritzko aditz kopulatibo aurki ditzakegu euskaraz: *izan* eta *egon* (1) (Zabala 1993, 2003). Eredu orokorrean, *egon* kopula erabiltzen da egoera-mailako predikatuetan (2); *izan* kopula, aldiz, izaera-mailako predikatuetan azaltzen da (3).

(2)	Irakaslea	lasai	dago
	Irakaslea.ABS	lasai	dago (egon)
(3)	Irakaslea	lasaia1	da
	Irakaslea.ABS	lasaia	da (izan)

Ekialdeko hizkeretan, ordea, *izan* kopularekin egiten dira egoera-mailako predikatuak (4), izaera-mailako predikatuak (3) bezalaxe.

(4)	Irakaslea	lasai	da
	Irakaslea.ABS	lasai	da (izan)

Beraz, euskararen orokortasunari erreparatuz gero, *izan* kopula euskalki eta hizkera guztietan aurki daiteke eta bi motatako predikatuak hauta ditzake, bai izaera-mailakoak (1a) bai egoera-mailakoak (1b) (Zabala 1993: 158-159).

Aldiz, *egon* kopulak egoera-mailako predikatuak soilik hautatzen ditu (1b) eta ez da gramatikala izaera-mailako predikatuak (1a) (Zabala 2003: 426). Banaketa honek, *egon* bien artean murriztaileena eta markatuena dela iradokitzen du (Villasante 1980: 125; Zabala 1993: 159, 2003: 426). Izan ere, *izan* beti erabil daiteke *egon* kopula erabil daitekeen testuinguruetan, ez ordea alderantziz.

Are gehiago, egoera-mailako predikatu batzuekin ere *izan* hautatu behar da hizkera guztietan, baita *egon*

kopula duten hizkeretan ere. Halakoak dira egoera psikologiko edo fisiko bat adierazten duten predikatu batzuekin (*beldur, ikara, gose, egarri, lotsa, ahalge, haserre, izerdi, hotz, bero...*) erazten diren perpausak (5), baita ebentuen kokapena adierazten duten predikatuekin (6) erazten direnak ere (Zabala 2003: 428).

(5)	Haurra	beldur	da/*dago	
	Haurra.ABS	beldur	da (izan) / dago (egon)	
(6)	Jaia	Mirenen	etxean	da/*dago
	Jaia.ABS	Miren.GEN	etxe.INE	da (izan) / dago (egon)

Laburbilduz, egoera-mailako predikatuak *egon* kopularekin sortzen dira eredu orokorrean (2), izaera-mailako predikatuak ez bezala (3). Ekialdeko hizkeretan, berriz, *izan* kopula erabiltzen da egoera-mailako predikatuetan (4), izaera-mailako predikatuekin erabiltzen den berbera alegia.

Oharrak:

1 Mugatzailearen agerpena izaera-mailako edo egoera-mailako predikatu izatearekin estuki lotuta dagoela dirudi. Beti egoera-mailako predikatu gisa agertzen diren ale lexikoak ez dira inoiz gramatikalak artikularekin; aldiz, beti izaera-mailako predikatu gisa azaltzen diren ale lexikoek artikulua beharrezko dute. Izaera-mailako zein egoera-mailako predikatu gisa ager daitezkeen predikatuetan, interpretazioa anbigua izan ez dadin erabiltzen da artikulua, bereziki ekialdeko hizkeretan, kopula berbera erabiltzen baita mota bietako predikatuekin (Zabala 2003: 433-434).

Banaketa dialektala

Deskribatutako hizkera eredu, hots, egoera-mailako aditzak *izan* kopularekin egiten dituen (4), ekialdeko hizkeretan aurki dezakegu. Zabalak (1993: 159) dioenez, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako hizkera batzuetan *izan* hautatzen da are kokapenezko balioarekin ere (7), *egon* kopularen balio bereizgarriarekin hain zuzen. Aldiz, *egon* gehiago erabiltzen da zenbat eta hegoalde eta mendebalderago joan.

(7)	Miren	etxean	da
	Miren.ABS	etxe.INE	da (izan)

Ipar Euskal Herriko hizkeren berri Zuazok (2004: 208, 2013: 169) dakar. Bere esanetan, *egon* aditzak leku gutxi dauka Ipar Euskal Herriko euskarari, ziurrenik frantsesaren eraginez. Izan ere, frantsesak ez du *izan/egon* bereizketarik, *être* aditz bakarra baino. Horren ondorioz, Ipar Euskal Herrian *akitua da* edo *bakarrik da* bezalako formak aurki ditzakegu, Hego Euskal Herrian ohikoago diren *nekatuta dago* eta *bakarrik dago* formak beharrean.

Nafarroako hizkerari dagokienez, Zelaietak (2005: 293) Bortzirietako euskarari “izan/egon aditzen arteko lehia dagoela” aipatzen du, eta *izan* kopula egoera-mailako predikatuekin erabiltzen diren

zenbait adibide jasotzen ditu: *konforme zera?, dena ilun tzen, gure ama zena eri zen, ongi naiz, ura re lotan tzen...*

Orobat, Zelaietak (2005: 293) bere egiten du Ibarra Murillok (2000: 199) Esteribarreko zein Erroibarreko euskarek buruz dioena, hau da, beste euskara batzuetan *egon* erabiltzen den arren, hizkera hauetan *izan* erabiltzen dela, Ipar Euskal Herriko hizkeren jokabidearekin bat eginez Hego Euskal Herrikoekin baino.

Laburbilduz, hizkera eredu hau (4) Ipar Euskal Herriko hizkeretan eta Nafarroa ipar-ekialdeko hizkera batzuetan aurki daiteke.

Datu-basearen emaitzak

Datu-baseko emaitzek bat egiten dute goian azaldutako banaketa dialektalarekin. Egoera-mailako predikatuekin *izan* kopula erabiltzen dela jaso da Ipar Euskal Herriko hizkeretan: Larresoron eta Ziburun (nafar-lapurterra) eta Urdiñarbeko zubereraz jaso ditugu baiezko emaitzak.

Hego Euskal Herrian, Nafarroako Arizkun, Goizueta eta Merkiritz herrietan aurki daiteke hizkera eredu hau. Arizkun Baztango herria izanik, bat dator Zelaietak (2005) Bortzirietarako deskribatzen duenarekin. Merkiritz, aldiz, Erroibarko euskararen adierazle da eta Ibarra Murillok (2000) aipatutakoarekin bat dator. Goizuetako hizkeran ere lekukotzen da hizkera eredu hau, Leitza aldeko nafarreran, beraz.

Azkenik, erdialdeko hizkeran ere jaso dugu hizkera eredu honen berri, Hernanin hain zuzen ere, ez ordea ekialderagoko hizkeretan, hala nola Errenteriakoan eta Irungoan.

Aipamenak

Ibarra Murillo, Orreaga. 2000. *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Villasante, Luis. 1980. *Sintaxis de la oración simple*. Oñati: Editorial Franciscana.

Zabala, Igone. 1993. *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean: Euskararen kasua*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

Zabala, Igone. 2003. «Nominal predication: copulative sentences and secondary predication». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 426-448.

Zelaieta, Edu. 2005. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)» *FLV*, 37, (99 zb.). 287-306.

Zuazo, Koldo. 2004. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

vi.2. Jabetzaren adierazpena: *eduki, ukan* (v *izan/*edun*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Jabetzaren adierazpena: *eduki, ukan* (v *izan/*edun*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=6&e=36&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, iragangaiztasuna/iragankortasuna, jabetzazko edun

Deskribapena

Aditz laguntzaile iragankorra izateaz gain, **edun* jabetza adierazten duen aditz nagusia ere izan daiteke (1) (Arregi 2004: 3).

(1)	Nik	seme	bat	dut
	ni.ERG	seme	bat.ABS	(3ABS).edun.1SG.ERG

Hala ere, aditz nagusia eskatzen duten egituretan, hala nola, partizipio burutuan (2a), etorkizuneko partizipioan (2b) edota nominalizatutako aditz-izena bezalako beste edozein forma jokatugabetan (2c), ez dago **edun*, *izan* baizik, perpausa iragankorra izan arren (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 122; Hualde 2003b: 221; Arregi 2004: 10-13).¹

(2a)	Nik	seme	bat	izan	dut	
	ni.ERG	seme	bat.ABS	izan.PTCP	(3ABS).edun.1SG.ERG	
(2b)	Nik	seme	bat	izango	dut	
	ni.ERG	seme	bat.ABS	izan.PROS	(3ABS).edun.1SG.ERG	
(2c)	Seme	bat	izatea	esperientzia	zoragarria	da
	seme	bat.ABS	izan.NMLZ	esperientzia	zoragarria	(3ABS).izan

Hizkera batzuetan, *izan* /**edun* aditzen ordez, *eduki* aditz lexikoa erabiltzen da jabetza adierazteko (Hualde 2003b: 221). Aditz lexiko hau forma sintetikoan (3a) edota aditz perifrastiko baten aditz nagusi gisa (3b) erabil daiteke.

(3a)	(Nik)	seme	bat	daukat
------	-------	------	-----	--------

	ni.ERG	seme	bat.ABS	3ABS.eduki.1SG.ERG	
(3b)	(Nik)	seme	bat	eduki	dut
	ni.ERG	seme	bat.ABS	eduki.PTCP	(3ABS).edun.1SG.ERG

Mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan gertatzen da hau batez ere. Hizkera hauetan, **edun* adizki perifrastikoetako aditz laguntzaile erabilerara mugatuz joan da (Arregi 2004: 3; Zuazo 2017: 47).

Ipar-ekialdeko hizkeretan, *ukan* aditza ere azal daiteke partizipiozko forman (3c), *izan* aditzaren ordeztan (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 122-123; Hualde 2003b: 221).

(3c)	(Nik)	seme	bat	ukan/ukanen	dut
	ni.ERG	seme	bat.ABS	ukan.PTCP/ukan.PROS	(3ABS).edun.1SG.ERG

Oharrak:

1 **Edun* berreraikitako partizipioa izanik (Hualde 2003b: 221), ez da hitz posiblea euskaraz (Arregi 2004: 10). Ondorioz, ezin da partizipio hau aditz nagusi bezala erabili, ezta hortik abiatuta forma jakatugaberik eraiki ere.

Banaketa dialektala

Aurreko deskribapenean, **edun* erabiltzen duen eredu orokorraz gain, beste bi hizkera eredu bereizi ditugu: batetik daude *eduki* erabiltzen dituzten hizkerak (3a-b); bestetik, *ukan* erabiltzen dutenak (3c).

Zuazoren (2017: 48) arabera, jabetza adierazteko *eduki* aditz nagusia mendebaleko euskalkian eta erdialdeko hizkera askotan aurki daiteke. Hizkera hauetan, **edun* aditz laguntzaile funtziora (*hartu dot*) edo atributuko perpaus kopulatiboetara (*ori laguna dogu*) mugatuta geratu da.² Mendebaleko eta erdialdeko hizkerez gain, Nafarroako hizkera batzuetan ere erabiltzen da *eduki* aditz nagusi gisa, hala nola Sakanan.

Mendebaleko euskalkian idazki zaharrenetatik gaur egun arte antzematen da *eduki* aditzaren nagusitasuna (Zuazo 2017: 47-48).³ Esate baterako, Deba ibarrean *eduki* guztiz nagusitu dela dio Zuazok (2006: 82) eta Antzuolako adibideak dakartza horren erakusle (Larrañaga 1998 apud Zuazo 2006: 82).⁴

(4a)	<i>Pisarrina ordua geunkanian arro eote giñan</i> (327)
	‘Arbeltxo osorik geneukanean harro egoten ginen’
(4b)	<i>Arek eseukan diruan anbisiñorik</i> (336)
	‘Hark ez zeukan diruaren anbiziñorik’

Erdialdeko euskalkiari dagokionez, Gipuzkoako alderdi zabal batean ere *eduki* erabiltzen da jabetza adierazteko. Adibidez, Hurtadok (2001: 116) egoera hori deskribatzen du Goierrin eta Tolosaldean;

esaterako, Seguran (5a) eta Tolosan (5b):

- | | |
|-------------|--|
| (5a) | <i>Segura garai baten izan'tzan ba... (...) amar bat erri euki zittun bere mende</i>
'Segura garai batean izan zen ba... (...) hamar bat herri eduki zituen bere mende' |
| (5b) | <i>Biyok igual, inbidiya es eukitzeatikan; baina, suertea izan degù</i>
'Biok agian, enbidia ez edukitzeagatik; baina, zortea izan dugu' |

Hala ere, Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasuak (2007: 50) Beasaingo (Goierrri) hiztun nagusiei oraindik **edun* entzuten zaiela diote, adibidez:

- | | |
|------------|--|
| (6) | <i>Badakizue, garai hartan esnea lau txakurreatik saltzen zan, ta baserrin familik bere gastue do, nahiz gutxi izan</i>
'Badakizue, garai hartan esnea lau txakurrengatik saltzen zen, eta baserrian familiak bere gastua du, nahiz gutxi izan' |
|------------|--|

Erdialdeko euskalkiaren ipar-ekialdean ere *eduki* aditzaren adizki trinko batzuk aurki daitezke jabetza adierazteko, hala nola Lezoko euskararen (Agirretxe eta Esnaola 2000: 117) eta Pasaiakoan (Agirretxe, Lersundi eta Olaetxea 1998: 212). Dena den, oro har eremu honetako hizkeretan ez da *eduki* nagusitu eta eredu orokorrari eusten zaio. Horren adierazle dira Hondarribia eta Irungo euskarak, eremu gehiengan ez baitute *eduki* erabiltzen. Hizkera hauetan, Hondarribian batez ere, **edun* aditzaren trinkoak erabiltzen dira jabetza adierazteko, *eduki*-ren adizkiak baino gehiago (Sagarzazu 2005: 78-79).

Azkenik, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo, Zuazok (2010: 127) Nafarroako Sakanan ere *eduki* nagusitu dela dio, **edun* ia guztiz baztertuta geratu arte. Esaterako, Urdiaingo hizkeran *arrazoi dukazu* (ez 'arrazoi duzu'), *launak banuka-tzien* (ez 'lagunak banituen') esaten da.

Nafarroako beste eremu batzuetan ere, hala nola ipar-mendebaldeko hizkeretan (Apalauza Olló 2008) eta Baztango hizkeran (Salaburu eta Lakar 2006: 131), *eduki* aditzaren adizki trinkoekin adieraz daiteke jabetza, ez ordea Bortzirietan (Zelaieta 2005: 293), non eredu orokorrari jarraituz **edun* den nagusi. Zelaietaren (2005: 293) arabera, Bortzirien inguruko Gipuzkoako, Goizuetako eta Baztango mintzoetan badago lehia **edun* eta *eduki* aditzen artean, Bortzirietan ez bezala.

Bigarren hizkera eredu Ipar Euskal Herriko hizkeretan aurki daiteke. Hizkera hauetan, aditz nagusia behar den perpausetan jabetza adierazteko *izan* aditzaz gain (2) *ukan* (3c) ere erabiltzen da, Hego Euskal Herriko *eduki*-ren ordez (Zuazo 2004: 208, 2013: 167; Epelde 2004b: 664).

Oharrak:

2 Zuazok (2017: 47) gaztelaniaren eragina aipatzen du aldaketa honen arrazoi posibletzat, hizkuntza honetan ere *haber* aditzak aditz nagusi funtzioa galdu baitzuen.

3 Araban gertatu bide zen aldaketaren hasiera, XVI. mendeko idatzietan (Landucciren hiztegia eta Lazarragaren eskuizkribua aipatzen ditu) jada *eduki*-ren aldeko hautua ikus baitaiteke. Adibidez, Landucciren hiztegian honako adibideak daude: *lotsa euki, bildur euki, jateko gurea euki* (Zuazo

2017: 47-48).

4 Hala ere, **edun* ez bide da guztiz arrotza: *emengua seban andria* ‘hemengoa zuen andrea’ (337) (Larrañaga 1998 apud Zuazo 2006: 82).

Datu-basearen emaitzak

Lehenengo hizkera ereduari dagokionez, bi jokabide bereizi ditugu datu-basearen emaitzetan. Batetik, jabetza adierazteko *eduki* aditzaren adizki trinkoak erabiltzen dituzten hizkerak ditugu (3a). Hizkera horien artean daude mendebaleko hizkerak eta erdialdeko hizkerak, ezaugarri honen banaketa dialektalari erreparatuz gero esperoko genukeen bezala. Erdialdeko euskalkian *eduki* aditzaren trinkorik ez darabilen hizkera bakarra Imotzeko euskara dugu.

Nafarroan Sakanako Arbizu eta Urdiainen ere ageri dira *eduki*-ren trinkoak, Zuazok (2010: 127) aipatu bezalaxe. Aldiz, datu-basean ezezko erantzuna jaso da Baztan eta Goizuetan eta datu honek Zelaietak (2005) aipatutako lehian **edun* aditzen alde egin izana iradokitzen du. Horrez gain, ekialderago Orbaizetan eta Nafarroa Behereko Oragarreko euskaran ere lekukotu da *eduki*-ren trinkoen erabilera, ez ordea Ipar Euskal Herriko gainerako hizkeretan.

Bestetik, lehen hizkera ereduaren baitan *eduki* aditza perpaus jokatugabeetan erabiltzen duten hizkerak daude (3b), *izan* aditzaren ordeaz, alegia. Oro har, *eduki*-ren trinkoak lekukotu diren hizkerekin bat datoz, bereziki mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan, non *eduki* aditzak nagusitasuna duen.

Hala ere, Gipuzkoako ipar-ekialdeko hizkeretan eta Nafarroan *eduki* aditzak indarra galtzen du aditz nagusi gisa. Esaterako, Irunen eta Erreterian *eduki*-ren aditz trinkoekin baiezkoa jaso den arren, ezezkoa jaso da *eduki* aditz nagusi bezala erabiltzen diren perpausetarako, Sagarzazuk (2005) aipatu bezala eremu honetan *eduki* aditza mendebalderago bezain indartsu ez dagoen seinale. Nafarroan, egoera bera lekukotu da Oragarren eta Arbizun ere, *eduki* forma sintetikoetan lekukotu baita, ez ordea forma jokatugabeetan. Beraz, *eduki* aditzak hedadura zabalagoa hartzen du ekialderantz eta hegoalderantz adizki trinkoekin, aditz nagusi gisa Bizkaian eta Gipuzkoan soilik ageri den bitartean.

Azkenik, bigarren hizkera eredu (3c) Ipar Euskal Herriko hizkeretan lekukotu da, espero bezala: Urdiñarben (zuberera), Oragarren eta Larresoron (nafar-lapurtera). Aldiz, Lapurdiko kostaldeko Ziburu herrian (nafar-lapurtera) ezezko erantzuna jaso da.

Aipamenak

Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herrizko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala

Agirretxe, Jose Luix and Imanol Esnaola. 2000. *Lezoko euskararen azterketa*. Lezo: Lezoko Udala.

Agirretxe, Jose Luix, Mikel Lersundi and Ortzuri Olaetxea. 1998. *Pasaiaiko hizkera*. Pasaia: Pasaiaiko Udala.

Apalauza, Amaia. 2008. «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta

- Araitz-Betelu». *FLV* 107. 63-104.
- Arregi, Karlos. 2004. «The Have / Be alternation in Basque». manuscript, Univ of Chicago.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zelaieta, Edu. 2005. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)» *FLV*, 37, (99 zb.). 287-306.
- Zuazo, Koldo. 2004. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkarte.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

vi.3. *Ukan izan-en orde*z partizipio erresultatiboetan

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). *Ukan izan-en orde*z partizipio erresultatiboetan. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=6&e=37&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, iragangaitzasuna/iragankortasuna, partizipiozko egiturak

Deskribapena

Eredu orokorrean, *izan* aditzaren partizipio erresultatiboa *izana* da (1). Hizkera batzuetan, haren ordeztan *ukan(a)* partizipioa ageri da (2).

(1)	Lehen lehen	ere ere	Baionan Baiona.INE	izana izan.PTCP.RES	naiz 1SG.ABS.izan
(2)	Lehen lehen	ere ere	Baionan Baiona.INE	ukan(a) ukan.PTCP.RES	niz 1SG.ABS.izan

Banaketa dialektala

Partizipio erresultatiboetan *izan*-en ordeztan *ukan* erabiltzea nafar-lapurteraren sortaldeko hizkeren ezaugarria da, Luzaideko euskararena esate baterako (Iñaki Camino, p.c.).

Aldiz, ez da lekukotzen nafar-lapurteraren sartaldeko eta erdialdeko hizkeretan (Beñat Oihartzabal, Piarres Xarriton, Maia Duguine eta Céline Mounole (p.c.). Hala dio Epeldek (2004a: 291) ere, Larresoron *izan* baino erabiltzen ez dela baitio (2)-ko egituretan, *ukan* jabetza adierazteko aditz nagusi gisa soilik aurki baitaiteke bertan, laguntzaile iragankorrek (jabetza adierazteko *ukan* aditzaren erabileraz ikus 55. kapitulua).

Hala ere, Milafrangan eta Hazparne aldean ere *ukan* honelako perifrasietan aurkitzea ohikoa dela aipatzen du Epeldek (2004a: 291), hizkera hauek sortaldeko nafar-lapurteran egon ez arren, erdialdeko nafar-lapurteran baino (Zuazo 2004). Edonola ere, *ukan* aditz perifrasi hauetan agertzea gero eta gaitzagoa da zenbat eta mendebalderago jo; Epeldek (2004a: 291) muga Kanbo inguruan ezartzen du, Itsasun *ukan* aditz nagusi gisa bakarrik erabiltzen delako.

Ebidentzia historikoak badaude testu idatzietan, adibidez: *bazioiten ni uketu naizen parte otan* (Hendaiaiko espioitzako gutunak, 1597); *25 urthez kastitatean bizi ukhetu zena* (Haramburu, 1635). Are gehiago, alternantzia hau *izan* (bere partizipiozko forman) partizipio erresultatibodun predikazioko kopula denean ere ikus daiteke: *ukandubaysen conceviturik* (goi-nafarreraz idatzirik otoitza, 1614) (Céline Mounole, p.c.).

Datu-basearen emaitzak

Datu-basearen emaitzei dagokienez, hizkera eredu hau (2) ez da datu-baseko hizkera batean ere lekukotu. Datu-basean aztertutako nafar-lapurteraren bi hizkeretako bat Larresorokoa da, eta Epeldek (2004a) adierazten duen bezala, hemen ez da lekukotzen. Bigarren hizkera Oragarreko euskara da, eta ekialderago dagoen arren, ezezko lekukotasuna jaso da datu-basean.

Aipamenak

Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.

Mitxelena, Koldo and Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zuazo, Koldo. 2004. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.

vi.4. Ari progresiboa subjektu ergatibo eta * edun aditz laguntzaile iragankorrarekin: ari dut (v ari naiz)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). *Ari progresiboa subjektu ergatibo eta *edun aditz laguntzaile iragankorrarekin: ari dut (v ari naiz)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=6&e=38&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, aspektu progresiboa, ergatibotasuna, erro alternantzia, iragangaiztasuna/iragankortasuna

Deskribapena

Eredu orokorrean, *ari izan* progresiboa subjektu absolutiboarekin eta *izan* aditz laguntzaile iragangaitzarekin batera azaltzen da, baita predikatu osagarria iragankorra edo ditransitiboa denean ere (1a) (Laka 2004: 116-117).

(1a)	(Ni)	ogia	jaten	ari	naiz
	ni.ABS	ogia.ABS	jan.IPFV	PROG	1SG.ABS.izan
(1b)	(Nik)	ogia	jan	dut	
	ni.ERG	ogia.ABS	jan.PTCP	(3ABS).edun.1SG.ERG	

Ari izan progresiboak subjektu absolutiboa eta *izan* aditz laguntzaile iragangaitza hautatzen ditu beti, edozein aditzekin doala ere, aditza iragangaitza zein iragankorra izan (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 427).

Hori dela eta, *jan* bezalako aditz iragankorrek progresibotik subjektu ergatiboa eta **edun* aditz laguntzaile iragankorra hautatu arren (1b), aspektu progresiboarekin kasu aldaketa bat jasaten dute. Orduan, subjektua absolutiboz markatzen da eta aditz laguntzailea iragangaitza hautatzen da (1a) (Laka 2006: 173).

Bestalde, ipar-ekialdeko hizkera batzuetan, *ari izan* progresiboa subjektu ergatiboarekin eta **edun* aditz laguntzaile iragankorarekin eratzen da, predikatu osagarria iragankorra denean (2) (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 449; Laka 2004: 127-128, 2006: 175).

(2)	(Nik)	ogia	jaten	ari	dut
	ni.ERG	ogia.ABS	jan.IPFV	PROG	(3ABS).edun.1SG.ERG

Banaketa dialektala

Ipar-ekialdeko hizkera batzuetan jaso da (2)-ko ereduaren berri. Lapurdin, Epeldek (2004a: 294) bai Hazparne aldean bai Larresoro aldean *ari izan* aditzak laguntzaile iragankorra har dezakeela dio: *garbitzen ai da / ekasten ai du beti* ‘ikasten ari dugu beti’ (Lar.). Hala ere, Larresoron laguntzaile iragangaitza sarriago entzun daitekeela aipatzen du. Senperen ere *bídea itén hai dié* eta *bídea itén hái duté*, biak erabiltzen dira (Irizar 1997: 86). Testuetan, XIX. mendetik aurrera autore lapurtar eta behe-nafarrek erabili izan dute *ari izan* laguntzaile iragankorarekin OEH-ren arabera.

Datu-basearen emaitzak

Ipar-ekialdeko hizkeren artean, Baztanen (nafarrera), Larresoron (nafar-lapurtera) eta Urdiñarben (zuberera) lekukotu da datu-basean (2)-ko hizkera eredu.

Aldiz, ez da lekukotu nafar-lapurteraren beste bi hizkeratan: Oragarreko euskaran eta kostaldean, Ziburun.

Eztabaida teorikoa

Euskara hizkuntza ergatiboa denez, perpaus iragankorretan –argumentu bi dituztenak– subjektuek ergatibo kasu marka hartzen dute eta osagarriek, berriz, absolutiboa. Orobat, subjektuak eta osagarriak ergatibo eta absolutibo komunztadura erakusten dute hurrenez hurren **edun* aditz laguntzaile iragankorarekin (3a). Perpausa ditrantsitiboa izanez gero, komunztadura datiboa duen eta kasu horretan markatuta dagoen argumentu datibo bat ere egongo da (3b).¹

(3a) Nik etxeak eraikitzen ditut

(3b) Nik liburua ematen dizut

Perpaus iragangaitz –argumentu bakarrek– inakusatiboetan, aldiz, subjektuak gaia errol tematikoa du, absolutiboz markatzen da eta komunztadura *izan* aditz laguntzaile iragangaitzarekin (3c) egiten du. Perpaus iragangaitza inergatiboa bada, orduan, subjektuak egile errol tematikoa dauka, ergatibo kasuaz markatua eta ergatibo komunztadura egiten duena **edun* aditz laguntzailearekin (3d).

(3c) Ni etxera joaten naiz

(3d) Nik eskiatzen dut

Orain arte deskribatutako kasu markaketa aspektu progresibotik kanpoko perpausetan ikus daiteke. (3)-ko perpausak *ari izan* progresiboarekin sortutako perpaus bihurtuz gero, ordea, aurretik deskribatutako kasu markaketa ez da gordetzen, kasu eredu berezia sortzen baita (4) (Laka 2004: 116-117):

(4a) Ni etxeak eraikitzen ari naiz

(4b) Ni liburua ematen ari natzaizu

(4c) Ni etxera joaten ari naiz

(4d) Ni eskiatzen ari naiz

Ikus daitekeenez, (4a-b-c) perpausetako subjektuek kasu marka absolutiboa hartu dute eta aditz laguntzailea *izan* da, nahiz eta progresibotik kanpo (3) aditz berberekin sortutako perpausak ergatibo markadun subjektua eta **edun* laguntzaile iragankorra erakutsi (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 430; Holmer 1999: 199; Laka 2004: 116-117).

Ari izan-ekin sortutako progresiboak kasu markaketa eta aditz laguntzaile hautaketan erakusten duen berezitasun honi arreta jarri izan diote hainbat hizkuntzalarik. Izan ere, *eraiki*, *eman* eta *eskiatu* aditzetan egile errola duen kanpo argumentuak ez du absolutibo kasua hartzen *ari izan* progresiboarekin ez baldin bada, Holmerrek (1999: 191) adierazten duen bezala. Hala izanik, euskaraz egile errola duen argumentuak ergatibo kasua hartzen duelako baieztapenaren salbuespena litzateke *ari izan* progresiboa.

Lakak (2004: 117) dioenez, arazo teoriko hau azaltzen saiatu diren hizkuntzalari batzuek aspektu progresibodun perpausak egitura antipasiboak direla proposatu dute, *ari* partikula iragangaiztaile bat dela argudiatuz, hala nola Postalek (1977) eta Alonso Cortesek (2002). Kasu horretan, *ari*-k aditz iragankorrak iragangaizteko funtzioa izango luke.

Alabaina, Hualde eta Ortiz de Urbina (1987: 435) (4)-ko egituretan antipasiborik ez dela erakutsi dute. Bi arrazoi nagusi ematen dituzte. Batetik, *ari* ez da aditz iragankorrekin agertzeraz mugatzen, iragangaitzekin ere ager daiteke, (4c) adibidean ikusi dugun modura. Kasu horretan, aditz iragangaitz batekin agertzen bada, ez du zentzurik partikularen ustezko iragangaizte funtzioak. Bestetik, *ari* aditz nagusi eta bakar moduan ere ager daiteke (5), PS inesibo bat osagarritzat duela. Orduan ere, ez dauka

beste aditz bat iragangaizteko funtzioa, ez baitago beste aditzik.

(5) Ni lanean ari naiz

Hualde eta Ortiz de Urbinak (1987: 437-438) baztertutako beste hipotesi bat da *ari* aditz laguntzailearen aurreko partikula bat edo elementu modal bat izatea. Izan ere, *ari* aditzaren eta laguntzailearen artean agertu ohi da, *ahal* modala edo *omen* partikula bezalaxe (6).

(6a) Nik ogia jan ahal dut

(6b) Anek ogia jan omen du

Hipotesi honen alde ez egiteko arrazoa *-tzen* morfemaren analisitik datorkigu. Hualdek eta Ortiz de Urbinak (1987: 428) aipatzen dutenez, morfema hau ambigua da, bi morfema homofono baititugu euskaraz. Batetik, *-tzen* aspektu-marka burutugabea, (3)-ko perpausetako berbera. Progresiboan *ari*-ren aurretik ageri dena aspektu burutugabearen marka baldin bada, kasu horretan *ari* aditz nagusi baten eta laguntzailearen artean legoke, *ahal* eta *omen* partikulak egon ohi diren bezala (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 436).

Bestetik, ordea, *-tze* morfemak aditz nagusi baten aditz-izena sor dezake. Kasu horretan, aditz-izena *-n* inesiboaz markatuta dago, *-tzen* amaiera sortuz (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 437). Kontuan hartuz gero *ari izan* aditz nagusi eta bakar gisa agertzen denean (5) osagarritzat PS inesiboa hartzen duela, pentsa genezake (4)-ko perpaus progresiboetan ere *ari izan*-ek osagarri bera hartzen duela, hots, inesiboz markatutako perpaus bat. Hau hala bada, *ari izan* progresiboa ezin da *ahal* edo *omen* moduko partikula edo elementu modal bat izan, hauek beste aditz nagusi baten modua modifikatzen dutelako.² Ondorioz, (4)-ko *-tzen* morfema ez da aditz nagusi baten aspektu burutugabearen marka (3), inesiboz markatutako aditz-izena baizik.

Hain zuzen ere, Demirdache eta Uribe-Etxebarriak (2000: 178-179) erakusten dute munduko hizkuntzetan denbora-aspektu harremanak adierazteko erabiltzen diren ereduak espazio kokapenak adierazteko adierazpenetatik eratorri ohi direla. Honek hizkuntza-arteke ebidentzia eskaintzen digu *-tzen* morfema inesibodun aditz-izen moduan aztertzearen alde, inesiboa lekuzko kasua baita, oro har espazioa eta kokapena adierazten dituena.³

Beraz, Hualde eta Ortiz de Urbinak (1987) proposatutako analisiaren arabera, *ari izan* da aditz nagusia eta, (5) adibidean bezala, aditz honek inesibodun osagarri bat hartzen du, kasu honetan menpeko perpaus bat, aditz-izen inesiboa buru duena (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 437; Laka 2004: 122).

Hualde eta Ortiz de Urbinaren (1987) hipotesia aintzat hartuta, hots, *ari izan* aditz nagusi bat dela, (4)-ko perpaus progresiboetan aditz eta perpaus bi ditugula ondorioztatzen da, eta hortaz, perpaus konplexuak direla. Hauetan, aditz nagusi bat (*ari izan*) eta honen osagarria den menpeko perpausa daude (Laka 2004: 122-123). Adibidez, (4a) adibidean, [etxeak eraikitzen] litzateke menpeko perpausa, *ari izan* aditzak osagarritzat hartzen duena.

Hipotesi hau ontzat hartzen badugu, *ari izan* aditza inakusatiboa dela konturatuko gara, hau da, bere argumentu bakarra subjektu iragangaitza dela. Horregatik, hain zuzen ere, (4)-ko *ni* subjektua absolutiboz markatuta dago eta *ari izan* aditzaren gaia da. Orobat, hori da *ari izan* aditzak beti *izan* laguntzaile iragangaitza hautatzearen arrazoa, osagarritzat edozein aditz-izen hartzen duela ere.

Beraz, hasieran aurkeztutako arazoa, hau da, egilea ergatiboz baino absolutiboz markatuta egotea, desagertu egiten da perpaus progresiboak perpaus konplexutzat ulertuta. Analisi honetan, *ari izan* aditzaren subjektua ez baita egilea, gaia baino, ohiko marka absolutiboarekin.

Menpeko perpaus jokatu gabean, aldiz, inesiboz markatutako aditz-izenak bere argumentuak ditu, aditzaren arabera. Esate baterako, (4a)-ko *eraiki* aditz iragankorrak subjektu iragankor isila du, ergatiboz markatua eta perpaus nagusiko subjektuaren erreferentziakide dena (Laka 2004: 117). Horrez gain, *etxeak* osagarria ere badu, absolutiboz markatua.⁴

Analisi honen alde egiten dute baita mendebaleko euskalkietan ageri diren progresiboek (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 429, 3. oin-oharra; Lakak 2004: 122-123). Hauetan, *ibili* (7a) edo *egon* (7b) aditzak erabiltzen dira *ari izan* aditzaren ordean progresibo adierazteko (ikus 58. kapitulua). Argi ikus daiteke honako aditz hauek ez direla laguntzaileak, osagarritzat aditz-izena hartzen duten aditz nagusi iragangaitzak baizik:

(7a) Karate ikasten dabil

(7b) Karate ikasten dago

Azkenik, ekialdeko hizkera batzuetan deskribatu dugun hizkera eremuan, *ari izan* aditzak subjektu ergatiboa eta aditz laguntzaile iragankorra hartzen duela ikusi dugu (2). Nolatan da hori posible, *ari izan* aditza inakusatiboa baldin bada? Lakak (2004: 128) *gramatikalizazioaren* prozesuaren bidez azaltzen du auzi hau.

Laguntzaile iragankorraren bidez eratutako progresiboak (2) iragangaitzen bidez eratutakoen (1) baliokideak dira esanahiaren aldetik. (1) bezalako formatik, ipar-ekialdeko hizkera batzuek (2) erabilera berria garatu dute XIX. Mendearen bigarren erdialdetik hona (OEH). Lakak (2004: 128, 2006: 188) proposatzen duenaren arabera, gramatikalizazioaren bidez kategoria aldaketa bat gertatu da, *ari* kategoria lexiko izatetik (aditza)⁵ kategoria funtzional izatera igaro baita, hots, aspektu-marka progresibo bezala berriinterpretatu da.

Beraz, Lakaren (2004: 128) arabera, euskalki hauetan *ari* ez litzateke aditz nagusia, eredu orokorrean bezala, ez bada aspektu progresiboaren marka. Ondorioz, egitura hauek bakunak dira. Aspektu-marka burutugabea duen aditz nagusia iragankorra denean, subjektuak ergatibo kasua eta osagarriak absolutibo marka jasotzen ditu. Orobat, argumentu bakoitzak komunztadura egiten du **edun* aditz laguntzaile iragankorarekin, ohiko perpaus iragankorretan bezala.

Oharrak:

1 Datiboa predikatu iragankorretan ez ezik predikatu inakusatiboetan eta inergatiboetan ere ager daiteke, *niri elefanteak gustatzen* zaizkit eta *nik begiratzen dizut* perpausetan bezala, hurrenez hurren (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 429-430).

2 Ekialdeko hizkeretan, *-tzen* markaz gain *-tzerat*, alatiboz markatutako aditz-izena, edo *-tzeari*, datiboz markatutako aditz-izena, ager daitezke *ari* progresiboetan (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 428-429).

3 Progresiboan ageri den postposizio lokatiboak ekintza leku batean gertatzen zela adieraziko zuen ziurrenik lehenengo, baina gerora espazio adiera denbora adierara aldatuz joan bide zen (Demirdache

eta Uribe-Etxebarria 1997: 179).

4 Hain zuzen, progresiboa bi perpausek osatutako perpaus konplexu gisa ulertuz gero, erraz azaltzen da *eraiki* bezalako aditz iragankorretan bi argumentu absolutibo agertzearen arazoa: bata *ari* aditz nagusi iragangaitzaren subjektua da; bestea, aldiz, menpeko perpausaren osagarria. Orobat, horregatik erakusten du subjektuak soilik aditz laguntzailearekiko komunztadura absolutiboa (Hualde eta Ortiz de Urbina 1987: 430; Laka 2004: 122).

5 Prozesu bera gertatu bide da (3) bezalako perpaus inperfektiboetan ere. Lehenago leku harremana adieraziko zuen *-tzen* morfemak, inesiboz markatutako aditz-izena izango baitzen, baina gerora *-tzen* inperfektiboko aspektu marka (aspektu buru) gisa gramatikalizatuko zen eta perpaus bakuna berrinterpretatu (Laka 2004: 126).

Aipamenak

- Demirdache, Hamida and Myriam Uribe-Etxebarria. 2000. «The Primitives of Temporal Relations». In R. Martin, D. Michaels and J. Uriagereka (eds.), *Step by step. Essays on Minimalist syntax in honor of Howard Lasnik*. Cambridge, MA: the MIT Press. 157-186.
- Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.
- Holmer, Anders. 1999. «An active analysis of Basque ergativity» *Fontes Linguae Vasconum* 81: 189-225.
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina. 1987. «Restructuring with ARI» *ASJU International Journal of Basque Philology*, XXI-2, 425-452.
- Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*. Iruñea: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Laka, Itziar. 2004. «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak». In Pablo Albizu and Beatriz Fernández (eds.), *Euskal Gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Bilbao: UPV/EHU. 113-132.
- Laka, Itziar. 2006. «Deriving Split Ergativity in the Progressive: the Case of Basque». In Alana Johns, Diane Massam and Juvénal Ndayiragije (eds.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht/Berlin: Springer. 173-195.
- Mitxelena, Koldo and Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

vi.5. Perifrasia progresiboak: *ibili, egon jardun, erauntsi (v ari izan)*

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Perifrasia progresiboak: *ibili, egon jardun, erauntsi (v ari izan)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=6&e=39&h=eu>]. ISBN: 978-84-

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, aspektu progresiboa, ergatibotasuna, iragangaiztasuna/iragankortasuna

Deskribapena

Erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan, *ari izan* erabiltzen da progresiboa adierazteko (Hualde 2016).

(1)	Karate	ikasten	ari	da
	karate.ABS	ikas.IPFV	PROG	(3ABS).izan

Mendebaleko hizkeretan, ordea, ez da *ari izan* erabiltzen eta bere ordez *egon* (2a) eta *ibili* (2b) erabiltzen dira (Ortiz de Urbina 2003a: 290; Zuazo 2013: 49; Hualde 2016):

(2a)	Karate	ikasten	dago	(Zuazo 2008: 77)
	karate.ABS	ikas.IPFV	(3ABS).egon	
(2a)	Karate	ikasten	dabil	(Zuazo 2008: 77)
	karate.ABS	ikas.IPFV	(3ABS).ibil	

Beste hizkera batzuetan *jardun* ere aurki daiteke *ari izan*-en ordeztan (Ortiz de Urbina 2003a: 290; Zuazo 2013: 49, 2018: 904):

(3)	Karate	ikasten	dihardu	(Zuazo 2008: 77)
	karate.ABS	ikas.IPFV	3ABS.jardun	

Azkenik, ekialdeko hizkera batzuetan *erauntsi* (>*iduntsi*) erabiltzen da *ari izan*-ekin batera.

(4a)	Labuantzan iduntsi dit eretretala artino			
	'Nekazaritzan aritu naiz jubilazioa arte'		(Zuazo 2013: 31, ikus halaber 2008: 54)	
(4b)	Iduntsi diat bazter xahatzen			

Banaketa dialektala

Egon (2a) edota *ibili* (2b) mendebaleko euskalkian aurki daitezke progresiboa adierazteko, euskalki honetan erabiltzen ez den *ari* izan-en ordez (Zuazo 2008: 77, 2013: 49; Hualde 2016). Aldiz, Ortiz de Urbinak (2003a: 291) *egon* Bizkaiara mugatzen dela eta, honen aldean, *ibili* aditza mendebaleko hizkera gehiagotan aurki daitekeela dio.¹

Bestalde, *jardun*-en adizki trinkoak (3) mendebaleko euskalkiaren sortaldeko hizkeretan erabiltzen dira, bereziki Deba ibarrean (Zuazo 2006: 83). Esate baterako, Eibarko euskararen aditz honen bidez adierazten da progresiboa (Etxebarria 1998; Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitia 2005). Zuazoren (2008: 77, 2013: 49, 2018: 904) esanetan, Deba ibarreko iparraldeko muturrean erabiltzen da gehienbat.

Amaitzeko, azken hizkera eredu (4) zubereraz erabiltzen da Zuazoren (2008: 54; 2013: 31) arabera.

Oharrak:

¹ Ortiz de Urbinak (2003a: 293) *joan* ere aipatzen du mendebaleko hizkeretan progresiboa sortzeko aditzen artean.

Datu-basearen emaitzak

Hasteko, *egon* (2a) mendebaleko euskalkian jaso da, baita erdialdeko hizkera gehienetan ere, Beizaman eta Irunen izan ezik. Horrez gain, Nafarroako Baztan bailaran ere lekukotu da, ez ordea nafarreraren gainerako hizkeretan, ezta Ipar Euskal Herrian ere. Beraz, goian aipatutako banaketa dialektala baino eremu handiagoa hartzen duela dirudi, Bizkaiatik eta mendebaleko euskaratik haragoko hizkeretan ere aurki baitaiteke.

Orobat, *ibili* mendebaleko euskalkiaz gain erdialdekoan eta Baztanen ere lekukotu da. Hala ere, erdialdeko euskalkian *egon* aditzaren banaketa desberdina du. Batetik, *ibili* Beizaman eta Irunen lekukotu da, hizkera hauetan *egon* ageri ez den arren. Aldiz, *ibili* ez da jaso Itsasondon, Azpeitian eta Hernanin. Azkenik, aditz hau ez da Nafarroan (Baztango euskaraz gain) eta Ipar Euskal Herrian ageri, espero bezala.

Zuazok (2008, 2013) adierazi duen moduan, *jardun* (3) mendebaleko sortaldeko hizkeretan lekukotzen da, Deba ibarrean bereziki: Mallabian, Aramaion,² Bergaran eta Elgoibarren jaso da datu-basean. Hain zuzen ere, Bergarako hizkeran bizi-bizirik bide da *jardun* aditza (Badihardugu Euskara Elkartia 2006: 4). Elgoibarren ere *jardun* aditzaren trinkoak ohikoak dira, orainaldikoak bereziki. Hala ere, Elgoibarren *ari izan* ere entzun daitekeela dio Makazagak (2009: 150), nahiz eta ez *jardun*-en adizkiak bezainbeste. Izan ere, badirudi *ari izan* zabalduz doala, Debabarrenean batez ere (Zuazo 2006: 83).

Horrez gain, (3)-ko hizkera ereduak erdialdeko euskararen sartaldean jaso da, Beizaman eta Azpeitian zehazki. Azkenik, banaketa dialektalaren arabera espero dena baino ekialderago, erdialdeko euskalkiaren ipar-ekialdean, Errenteriako euskararen lekukotu da.

Amaitzeko, *iduntsi* (4) ekialdean ageri da, espero bezala: Oragarren (nafar-lapurtera) eta Urdiñarben (zuberera) zehazki.

Oharrak:

² Zuazok (2006: 83) adierazten duenaren arabera, Aramaion ez dago *jardun*-en trinkorik. Horren ordez, **erauntsi* erroko adizkiak erabiltzen dira esanahi berarekin, nahiz eta galduz doazen.

Aipamenak

- Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarte. 2006. *Deba Ibarreko aditz taulak (3). Bergara, Debaerdikoa*. Eibar: Badihardugu.
- Demirdache, Hamida and Myriam Uribe-Etxebarria. 2000. «The Primitives of Temporal Relations». In R. Martin, D. Michaels and J. Uriagereka (eds.), *Step by step. Essays on Minimalist syntax in honor of Howard Lasnik*. Cambridge, MA: the MIT Press. 157-186.
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina. 1987. «Restructuring with ARI» *ASJU International Journal of Basque Philology*, XXI-2, 425-452.
- Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.
- Laka, Itziar. 2004. «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak». In Pablo Albizu and Beatriz Fernández (eds.), *Euskal Gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Bilbao: UPV/EHU. 113-132.
- Laka, Itziar. 2006. «Deriving Split Ergativity in the Progressive: the Case of Basque». In Alana Johns, Diane Massam and Juvénal Ndayiragije (eds.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht/Berlin: Springer. 173-195.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003a. «Periphrastic constructions». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin / New York: Mouton De Gruyter. 284-299.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.

Zuazo, Koldo. 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkartea.

Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektok*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

Zuazo, Koldo. 2018. «Deba Ibarreko euskara». In Joseba Lakarra and Blanc Urgell (eds.) *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica. ASJU* LII 1-2. 899-908.

